

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

337n. zenbakia

2008 aprilla



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

ON PAULIN SOLOZABAL SOLOZABAL

– ABADEARI–

1.

*Ementxe ni bertsotan
zuri ate joka,
eta neure gogoa
bertan nai det koka.
Zugandik ikasita
asko nago eta,
zuri nik gaur onena
nai nizuke opa.*

2.

*Azaltzea nai nuke,
ez dezu bearrik,
eusker a lantzen beti
badezu ederrik.
Idazteko lanetan,
bai al da oberik?
Itz lauz eta olerkiz
ez dezu agorrik.*

3.

*Itz gozoen sorburu,
ustutzen barrena,
itxaropena agertzen
dezu zure tema.
Abade on zeranez
emanik zuk dena,
or Jesusen mezua
lanean aurrena.*

4.

*On Paulin biotza det
azaltzeko era,
itzetan motz izanik
bustirik tankera.
Orrela azaldu nai det
zure jokaera:
Euskaldun ta fededun,
or biak batera.*

5.

*Euskal kultur gaietan
beti zu nabari,
baita Jainko bidetan,
ortik olerkari.
Zure uzta ederrak
ba du naiko gari,
aldatz pikuan beti
emanik ugari.*

6.

*Neure ezerezean
zuri bertsotan gaur,
mendigoizale bait naiz,
ta zu berriz gaillur.
Ur gardena nai dunak
zuga n ba du mur-mur,
Jainkoa da zurekin,
Aita Paulin, agur.*

EUSKAL EDERTIA

Bilbao'ko “Bellas Artes” edo “Edertia” erakundeak, aspaldiko eun urteetan euskal edertiak lortu dauzan bitxiak erakutsi gura dauz, orrelan bere eungarren urtea ospatzeko.

Larogei eder-lan dira erakusten diranak, guztiak egille euskaldunak edo gure erriagaz zer-ikusia daukenak dabez.

Erakusketa au laguntza izango da pinakoteka'n diran 224 lanen Ber-eginkuntza dan GIDA-LIBURUA argitaratzeko.

Ortxe daukaguz lan guztiak, 1908n. urtean asi eta pinakoteka sortu-arte: Manuel Losada (1865-1949) da gida-liburu onetan lenengo margolaria. Ondarrabi'ko Sergio Prego (1969) da bigarrena eta Andoain'go Pello Irazu (1963) irugarrena. Oneik dira iru kreatzaille mundu guzian ezagun biurtuak.

Gida-Liburu onetan, gaiñera, 118 ertilari datoz, oorezlo lekua irabazi dabenak.

Ederi-Museoak eungarren urtea ospatzeko argitaratzen dau liburu au eta onegaz batera doa beste 80 eder-lan erakusketaren asierea, bbk'ren aretoan aurtengo maiatzaren 25n. egunera arte iraungo dauana.

Museoaren zuzendari dan Xabier Viar jaunak egin dau ederlanen aukeraketa eta ara zer diñon beronek: “Erakusketa au zor bat zan, urren daukaguzan edergileen izenak aintzat artzeko”.

Guztiak, edo geienak, dagoz or sartuta, Eduardo Chillida'gaz edo Jose Luis Zumeta'gaz asi eta aiztuta euki doguzan beste batzutara eldu-arte, esaterako illunpean egon eta gida-liburuak agertu dauan Martin Amigo'ra arte.

Aukeraketa eginkeran, ertilariaren jaiotza-urtea euki da kontuan, edo, iñoz, erti-arloan noz agertu dan.

Bidea egiteko, asieran Eduardo Zamakois'en 1868n. urteko “Bufones jugando al cochonnet” ipiñi da, lan ederra benetan eta pinakoteka onek oraintsu eskuratua.

Gero Barroeta'tar Juan'en “Vista de El Abra de Bilbao desde Algorta” (1886) dartzor, lan bereizia, edergillearen lanen artean.

XIX gizaldian 1887n. urtekoa dan Jose Etxenagusia'ren “Sansón y Dalila” daukagu, baita Ansemo Ginea'ren “Gente. Un puente de Roma” 1904n. urtekoa eta Adolfo Guiard'en “La aldanita del clavel rojo” (1930).

XX gizaldikoak: Dario Regoyos'en “El Urumea” (1904), Donostia goratzeko egiña, antxe bizi zalako Ribadesella'koa zan margolari ospetsu au. Onek artu-emon asko euki eban laterri-margolari ospetsu dau. Onek artu-emon asko euki eban laterri-margolari ospetsu au. Onek artu-emon asko euki eban laterri-arteko margolariakaz, Europa'ko barrikuntza lortzeko aldian eta orretarako inpresio-zaleen bidea ondo ezagutu bear izan eban.

Frantzisko Iturrino'renak dira “Desnudas” “Mujeres jugando al corro” eta Regoyos'egaz batera alkartu zan Frantze'ko inpresiozale barriakaz.

Guiard eta Regoyos'eri jarraituz, euskal ertilariak Bruselas eta Paris'era begiratu eban eta 1900n. urte-inguruan margolaritza eguneratzeko iturririk onena izan ziran.

Or daukaguz, baita, 98n. belaun-aldikoak diran Ignazio Zuloaga (Retrato de la Condesa), Mathieu de Noailles-1913, Gustavo de Maeztu (El ciego de Calatañazor-1915), Juan de Etxebarria (Florero con plátanos, limones y libros-1917).

Agretzen dira, baita, Frantzisko Durrio, sinbolo-zalea eta Aurelio Arteta oitura-girokoa eta Ludiko II gudaren Europa'ko ertia dakarren Aguztin Ibarrola (La fábrica) eta Eduardo Chillida (Hierros del Temblor II) eder-lan beriziagaz.

(Jakingarri oneik Maite Redondo'k 2008n. urteko otsaillaren 12'koa DEIA'n agertu dauz erderaz.)

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erooten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

ZENBAT BURU, AINBAT ABURU?

Josemaria Murua'rena dan lenengo sari-dun idaz-lan au 335n. ZER'en agertu da, baina ez osorik eta bardin. Orregaitik, barrero argitaratzen dogu dan-lakoa agertu dedin.

IDAZKOLAKOAK

Irudipenezkoa.

Itzaldi baten aintzin solasa dugu. Areto eder eta apain batean, jarleku eroso bat artuta nago. Itzaldia astear, adi-adi nago. Erria, guretako edozein izan liteke.

Onela dio aurkezleak.

– Izlariak auexek dira: BATU, BIZKAI ETA GIPUZ.

Ezizenez aurkeztu dodaz norkiak. Beren iritziak, askoren aotan entzun daikeguz. Esaera zaarak diñoen lez, emen be esan daikegu: “Zenbat buru, ainbat aburu”. Idazburuan galde ikurraz jarri dogu ostera. Zergatia? Entzule bakoitzak atera begi bere iritzia, entzundakoaren arabera.

Ezizenak erabillita, aalik eta urrutien naiko geunke iñor mintzeko bidetik. Azken batean gure artean iritzi batekoa izan ala bestekoa, danok, ustez, asmo onakaz bait gabilta. Gure artekotatik euskeraren galelarik ez geunke iñork nai. Jardun orretan bide gurutzak dagoz, ostera, eta batzuetan ez da errez izaten zuzene-narekin asmatzen. Oba bearrez izatekotan jardunda be, sarritan gero usteak ustel gertatzen bait dira.

Gaurko itzaldian, bada, euskera dogu gai. Sarri aipatzen da euskerari buruz, gure arbasoen oiartzuna dala. Antzin antziñakoa. Zazpi milla urte ei dauz. Ori diñote adituek. Eta guk zer egingo ete dogu?

Eta jarraipenari begira, orain 40 urte euskera batuaren inguruan eztabaida larriak sortu ziran.

Baita be zatiketa galanta gure erkideen artean. Eta noiz ez gara ibilli euskaldunok zatikatuta, eztabaidan?

Ori be, zoritxarrez, gure-gurea izan nonbait, euskera lez.

Eta emen galdera larria: Urrengo 40 urteren buruan, batasunaren billa dalakoan artua dan

bidetik, ez ete leiteke gerta, 40 urteko diktadurak lortu ez ebana? Alegia euskal araudi baten bitartez bizkaiera baztertuz, azkenean deuseztatzea?

Gaur egun, euskera batua izenekoan murgildurik dabilzan gure gazte eta gaztetxuak, urrengo 40 urteren buruan, irurogei urte inguru izango dabezenak, zein motatako euskera erabiliko ete dabe euren oizko jardunaldietan? Edo agian, euskera erabiliko al dabe? Entzutera goazen itzaldiak, azken batean galdera orri erantzuna ematearen bidetik dator, aal dan neurrian.

Ara bada, gaur entzutera goazen berbaldiaren sarrera gisa, galdera larri oriek.....

.....

Eta kontuan bear dogu, bizkaiera euskeraren % 50 inguru dala. Euskera erabilia, egunoroko bizimoduan. Eta beraz, Erriak erabiltzen dabena. Gipuzkoan be sartzen dana. Garai bateko mugak egiterakoan zailla izan zan nonbait ori bereiztea. Bergara, Eibar, Elgoibar, Mendaro. E.a. batzuk aipatzearren, Bizkaiako mugan dagozan Gipuzkoako erriak dira. Bizkaieraz mintzatzen dira.

Gai sakona eta larria, beraz. Erabilten ez dan izkuntza il egiten bait da.

Asi gaitazan, bada, aurre berba onen ostean, gaiaren mami mamian sartzen.

Gaurko itzaldia esan lez, euskeraren etorkizunera begira da; atzekoa geiegi urratu gabe oba. Leengo zauriei ukendua emanda, oba. Ostean iru ikuspuntutik aztertzer goaz euskera batuarena, eta aurrean daukaguzan izlarien alkarrizketa entzuteko aukera izango dogu.

Orrela bukatu du aurkezleak. Eta entzun dugun bezala, batuaren leia sortu zenetik, 40 urtetan zear izandakoari buruz mintzatuko dira gure izlariak. Eta ortik, geroari begira.

Ni, esan bezala, entzuleen artean nago, eta entzundakoaren berri emateko izango da nire egin bearra.

– Asteko, ezkerretik asita, berba egizue, sarrera gisa, txanda motzean bakoitzak. Dio aurkezleak.

– BATU. 1968 gn. urtean, nik, artu ziren erabakien alde egin nuen. Eta ez dut damurik izan. Geroztik uste dut euskarari bultzakada galanta eman zaiola. Euskara bat ezarri dugu Erri Erakundeetan, eskolan, eta komunikabideetan, eta denok ulertzeko euskara erabiltzen dugu, baturatu egin delako. Beraz, nik aal

dudan neurrian, daukagun denbora laburrean, batua-
ren onurak azaltzen aaleginduko naiz.

– GIPUZ. Nik ez nuen ontzat artu 1968 erabakia. Erri euskeraren alde atera giñanen artean nintzen. Eta baturatzea ori ez zela azkarrean eta laister bidetik egitekoa. **Gaiñera lapurtera zaarra artu bear zela eredu,** esan zen, eta ortik ainbat eta gutxiago ez nuen irtenbiderik ikusten euskera batuarentzat, eta ez da ere euskeraren iraupenarentzat. Ni ez naiz iñoren aurka jardutekotan etorri. Euskera erabiltzean gaur egun entzuten ditugun utsuneak, eta okerrak azaltzen saiatuko naiz, uste apalean.

– BIZKAI. 1968ko erabakiekin txunditurik gelditu nintzan. Euskera batua egiteko, ez nuan ikusten bizkai-erarentzat tarterik. Ez nuan ikusten biderik, batez be aditzarekiko. Gero H- izki mutu ori idatzi bearra. Eta ainbat urtetan jardundako idazleei, urte pilla gaiñean ebelarik, ortografia berri baten mendean sartu bearra eskatzen eutsien. Nire jarduna, itaunak egiterarena izango da geienbat. Ez bait dogu ezer aurreratzen iñor astinduta. Al dogun neurri apurtxoan, geure bizkaiera-
ren alde egitea oba.

Ondoren BATUK onela dio:

– Uste dut zenbakietan azaltzen denez azken 20 urte auetan euskararen ezagutza geitu egin dela. Euskal Autonomian elebidunak bostetik bat ziren. Euneko 20. Ogei urte geroago, euneko 30. Orrek adierazten digu 200.000 iztun geiago badauzkagula. Eta or batua erabilli da.

– GIPUZ. Zu eta ni ari geranarekin, ez det alde nabarmenik aurkitzen. Zuk batua deitzen diozu. Nik gipuzkera dela, geienbat, esango nuke. **Zuek ordea, asieran, eredutzat lapurtera zaarra aldarrikatu zenuten.**

– BIZKAI. H-izkiak izan al dau eragiñik iztunak geitze orretan. Batu?

– BATU. Iparraldekoek eskubidea zuten, beren oguzkera kontuan artzeko. Eta beraiek H- izkia oguztu egiten dute.

– BIZKAI. Eta ildo orretatik, zer diñozu; Batu, bizkaiko aditzari buruz?

– BATU. Oroar esateko, aurrera egitekotan, beti zerbaiten galeran izaten da. National Geographic erakundetik esandakoa jasotzen dut emen: 3.500 izkuntza galduko omen dira, eta gureari eustekotan euskara bat eta indartsua bear dugu

– GIPUZ. Zuek ordea, Lapurtera zaarra aurkeztu zenuten eredu gisa eta orren ildotik egin bear zela batua esan zenuten, euskal literaturan aintziñagotik zetorrelako. Guk berriz genion EUSKERA INDARTSUA ERRIAREN AOTAN ERABILTZEN DEN NEU-

RRIAN izango dela. Eta Iparraldera begira, azken batean, zer egin dezue batuzaleok? Gizon jakintsu eta ospetsu batek, Iparraldekoa, ain zuzen, batuaren aldekoa izanik ere, auxe esan zuen, 1968 ko urtea pasata andik urte batzuetara: (Gutxi gora beera, mamia kontuan izanik) “Iparraldekoak, batuaren esparruan sartzeko, gaztelera neurria aundi xamarrean ikasi bearra daukagu”

– BATU. Dena ez da ateratzen nai bezala. Eta gauzak aurrera joan aala, asmotik zetozenak aldatu bearra izan da.

– GIPUZ. Zer alde dago zuk eta nik itz egiten degunaren artean? Beriz diot. Aditz batua izenekoan, ia dena, dena ez bada ere, gipuzkera da. Eta gaur egun edabideetan, aldiakarietan, eskoletan, eta Erri Erakundeetan darabilkiten euskerak, zer alde du gipuzkerarekin? Zuk azaltzen dezun euskeraren aldeko aurrerabide orretan, zein motatako euskera darabilkizue? Lapurtera zaarra ala gipuzkera geienbat? H- izkia berriz, Iparraldekoek, oguzten dituzten H- batzuk ere utzi bearrean aurkitu dira batuaren bidetik.

– BATU. Kontuan izanik, gero eta zaillago dela familiaren bitartez soillik euskaren jarraipena, iñolako zalantzarik gabe, izkuntza sistema da biderik onena euskara ikasteko.

– BIZKAI. Bai baiña, zuok batua deitzen dozuena-
ren orretan, nik gipuzkera ikusten dot. Eta gipuzkerak zergatik dau aurrera jarraitze orretan bizkaierak baiño garrantzi geiago?

– GIPUZ. Bai, ondo diozu BIZKAI. Eta, non utzi dezue lapurtera zaarra?, Batu. Ori ere bidean galdu al zenuten? Orretarako gure erri alfabetatu gabeari, eta gure umeei ipiñi al zenioten H- izkiaren zailtasuna? Bearrik ez eta. Batzuk bai, eta beste batzuk ez. Eta oguzkatu, ez da bat ere!! Zertarako jarri beraz, gaiñera lapurditarrak ez badituzue kontuan izan? Eta gaztelera mordo bat ikasi bearrean baldin badabilta batua izenekoa ikasteko?

– BATU. Dena dela, euskara neurri aundi batean, oizko tresna izatea biurtu dugu.

– BIZKAI. Entzuten dogunez, ikastoletako umeez, amarretatik iruk besterik ez ei du euskera erabilten ikastolatik kanpo. Eta ume bizkaitar batek nola erabilliko dau euskara etxean, aitita-amamakaz? Oneik bizkaieraz berba egiten dabelarik? Eta ume orrek etxean bizkaiera ikasi, eta gero eskolan bizkaiera ori bazterrean utzita, batua izenekoa ikasi bear izan dau. Batua, diñot, gipuzkera obeto esanda, ala ez?

– GIPUZ. Eta goiko Erakundeetan entzuten degu beste au ere gaiñera: “Itz egiteko bide erraza eta atsegiña ez bada, nekez itz egingo dugu euskaraz geiago eta toki geiagotan” Bizkaian eta Iparraldean, ordea, ezin da bete baldintza ori.

BIZKAI. Eta zelan izango ete da, bizkaiera emendik beste berrogei urtera? Azken batean, Euskal Erakunde-

etatik sortutako erabagiak, ez ete dabe ekarriko bizkai-eraren galera? Orain Bizkaian batua ikasten dabezen umeez zer berba egingo dabe? Aldi berean ez bait da ezertarako azaltzen bizkaiera edabideetan."Iparralde-aren orena" dalakoa entzuteko aukera ematen deuskue. Eta "Bizkaiaren orduak", noiz joko ete dau? Zenbait politiko bizkaitarrek, Lege Biltzarrean, aurretik idatzita, noski, batua izenekoa erabilten dabe. Gero andik kanpora dakien bakarra, baldin badaki, bizkaiera. Ez bait da alboan uztearena soillik izan. Zearo baztertuta dago, bizkaiera Erri Erakundeetatik; % 50tik baiño geiagok, berba egiten dabena, edo berba egiten ebena beintzak ain erabagi zorrotzak orain 40 urte artu ziranean.

– GIPUZ. Zenbat buru, ainbat aburu, azaldu ziren artan, nolabait esateko, euskaldun berriak izan zuten tarterik nabarmenena. Euskaldun zaar eta jakitun asko, gaitzetsiak izan ziren. Azken batean egin dezuena egiteko, ez zegoen asmatu bearrik, asmatu ziranak, euskalkien aurka, errian sustraitutako euskeraren aurka. Izugarriak entzun genituen: "Garro eta gorotz usaikoa utzi, eta euskara urbanoa eta funtzionala bear dugu". Panfleto izeneko bat ere zabaldu zan.....

Eta zer ez ziran esan! Euskeraren alde, lan betean, urterik larrienetan, egin zuen gizon jakintsu eta ospetsu bat "euskeraren etsai izendatu zuen" euskaldun berri batek..... **Eta azken batean lapurtera zaarrarenak porrot eginda; gaur egun batua izenarekin darabilkitema, ez al da gaitzetsi zituzten jaun oriena? Gipuzkera alegia.**

Nire aldetik bukatzeko adibide batzuk azalduko ditut gertatutakoaren lekuko gisa, orain amar, eta amabost urte entzuten zirenetatik. Eta baita gaur egun entuten ditugun batzuk. Zer nolako euskera mailla ere erabiltzen degun, kontutan ere bear izaten bait da. Ez bait da naikoa izaten zenbatzerakoan, besterik gabe, euskeraren ezagutza soillik aipatu. Zuzentasuna, gaitasuna, eta erabillera, kontuan bear azterketa orretan.

Esandakoaren arian; ona adibideak orain 15 urte inguru entzuten genituenetatik, esatari batzuen aotik:

- ✓ **Giro tensoa** Unibertsitatean
- ✓ Beraietako zuzendarien **baimen espresua** lortu bear da.
- ✓ Eskerrikasko zure ikustia
- ✓ Inkopatibilitatearen komisia.
- ✓ **Funtzioan dagoen Ministroak** esan du.
- ✓ Hainbat **bertso diferente** egin da.
- ✓ Erantzuna bear dut 48 ordutan.
- ✓ **Premia zuela** operatzea esan zion medikuak
- ✓ Influentzien trafikua
- ✓ Extraterrestreak inbaditu dute gure platoa.
- ✓ (Norbaitek zerbait esanda, erantzuna: "Au batua da")
- ✓ Nik euskera menderatzen ez zutenen "imperioa" esango nuke.

- ✓ Eta gaur egun ere or aipatutakoak ez badira entzuten ere, gipuzkera artu delarik "batua" gisa, ondoren dihoanarena ikusita, ez al lukete geixego saiatu bear, euskera erabiltzetik bizi direnak? Orra adibide batzuk:
- ✓ **"Bertan"** "aditzlagunaren erabillera. (Leenengoz, beste zeatzasunik gabe, mintzatzen ari denaren tokia izan liteke). Eta ildo orretatik, "Emen bertan-or bertan edo an bertan" zeatzua bearko luke izan.) Beraz, entzuten ari geranaren arabera, esan dezakegu, amarretatik bederatztan, oroar esanik, alperrik sartzen dutela batzuk "Bertan" aditzlagun ori. Esate baterako: "Gaur Tolosan degu batzarra, eta **bertan** izango den gai bakarra..." Or "bertan" zeatzearena alperrikakoa da. Ori kenduta: "Gaur Tolosan degu batzarra eta izango degun gai bakarra....."; ez al da naikoa? Orrelako oker asko, eta asko entzuten ari gera egunoro. Besterik da esatea: "Gaur Tolosan degu batzarra, eta bertan bazkaltzekotan gera". Bi ekintza bait dira Tolosan. Bat batzarra eta bestea bazkatzearena. Baiña beste orretan batzarra, gaiarekin lotua dago, beraz alperrik or "Bertan" aditzlagunarekin zeaztea.
- **"Emen-Or-An"**: Aditzlagunak dira. Aurreko atalean esandakoaren geigarri.. Eta "Bertan"-ekin batera erabiltzen denean, zeatzasuna ematen dute. "An bertan" e.a. Oso gutxi entzuten ditugunak. "Bertan" berriz, esan bezala, asko maiztu da, eta bear ez da. Egokiagoa bait da batzutan "Emen-or-an" erabiltzea, "Bertan" egiten dutenen orretan. Gaizki nola esan: "Tolosan jokatu da partidua, eta "bertan" jokatu dutenak... Non bestela? Alperrikako zeastasuna. Edo bestela "An jokatu dutenak, egokiagoa litzateke. Bestela, besterik gabe, "bertan" mintzatzen ari denaren tokia izan liteke. Eta beraz, obeto esanda: "An bertan" Emen bertan" ere izan bait liteke.
- ✓ **"Nagusi"**. Izena da eta izenondo ere bai. Eta izenondo bezala erabiltzerakoan, onelako pilla entzuten ari gera egunoro. "Arazo nagusia" Txapelketa nagusia" Batzar nagusia" Azterketa nagusia" Auzitegi nagusia" Lasterketa nagusia" Normaltasuna nagusi" Gai nagusia" Buruzagi nagusia" Lasaitasuna nagusi"Nagusitasun osoz" Zalantza da nagusi" Etsipena nagusituz doa" Fiskal nagusia" Athletic nagusitu zen". Laiñoak nagusitu dira
- ✓ Ori ez al nagikeria? Zertarako dira? "Gorena" leendabizi" Orokorra" Aundia" Aundiena" Garaille" Garaiena" Bereziena" Osoz" Artu" Irabazle" Betean".Geien" Geinbat" E.a..... Non dira maizterrak ainbeste nagusirekin?
- ✓ **Moduan**: Berdintasunezko erkaketa da. Oso erabillia izanik ez nuke esango gaizki dagoenik. Aldi berean ordea, ia ez bait degu entzuten: "Bezala" Eran"
- ✓ **Aal**: Beste aditz baten ondoan. Nire uste apalez geiegizkoa da orren erabillera. Adibide bat." Igan-

dean, Astelena pilota lekuan, oso partidu ederra ikusi aal izan genuen”. Ez al da naikoa, “Ikusi genuen” esatearekin. Besterik da: “Bidean elurra eta, iristeko eziñean, azkenean iritxi eta “partidua ikusi aal izan genuen” Euskal sena bear leenengoz eta azken batean, esaldiak ondo bereizteko. Gramatika ondo menderatuz, ainbat obe. Eta aaztu gabe ere esaldia au: “Dakienari galdezka, errez kentzen da kezka”. Nik “aal” sartzen duten tokian, askotan “aukera” izena erabilliko nuke.” Aala” besterik baita da.

• **Aalkeraren aditz jokoa.** Oso gutxitan entzuten ditugu onakoak: “Naiteke, dezaket, ninteke, lezake, e.a.” Eta batzuk, “Posible” itza erabillita zearo jaten dute aditz joko ori.

Gera bedi ortxe esandakoa azken atal auetan, kontu izan dadin, erabiltzea ez dela naikoa. Aalik eta obekien, era zuzenean eta bere osotasunean euskera erabiltzen saia bearra daukagu, nire uste apalez.

– BIZKAI. Ondo diñozu, GIPUZ, “Dakienari galdezka errez kentzen da kezka”. Emen ostera errezago izan nonbait beste ori: “Zenbat buru ainbat aburu”.

Ez ete zan orrelako zerbait gertatu 1968an, euskera batuaren inguruan? Azken batean maixukeria?..... Denpora izaten ei da “egiaren auzitegi gorena”. Nik gaur artekoari begiratzen ba deusot, gureak, bizkaitarronak, egin dau.....

Onelaxe amaitu da itzaldia. Ortik aurrera bakoitzak atera bitza bere kontuak. Aal izan dudan neurrian, bakoitzari entzundakoa idazten saiatu naiz. Au da: Bizkaiera, gipuzkera eta batua izenekoa. Uts egiteren bat balego, barka ezaidazu, irakurle.

Eta bukatzeko niri dagokidanez auxe:

**Jaien egitarauak, Bizkaian,
Batuaz, batuaz? Or da gipuzkera.
Ume batek ama or,
Nola bertan beera!
Bizkaian bizkaiera,
Ez al da euskera?**

Joxemari Murua

JAKITURIA

Giza seme argiak
te emakume askarrak
sortzen dabe itza,
itzaren bidez dator
jakituri argia
gizarte maitera.

Lurrean agertu da
izadia argitzeko
itz zoragarria,
sorrera aipagarria
mundua onduteko
datorren argia.

Andre-gizon artean
salbatu bear dabe
bizia lurrean,
jakintzaz zuzenduta
bizitz arau guztiak
zorion bidean.

IKASLEA

Aintzagarria zara
gizarteko itz ori
askoren pozgarri,
zuk edertuten dozu
gizadi samindua,
beti, arrigarri.

Gora buru argia,...
zure menpean dago
gizarte maitia,
gogo onagaz artu
ta zabaldu jakintza
estimagarria.

Gisadia zain dago
aurrera egin nairik
bizitza bidean,
betor jakituria
ta zabaldu ateak
bizitza aurrean.

PAULIN

HITLER

Adolf Hitler'ek 12 urte baiño ez ebazan egin agintari, baiña gizaldi osoa odoldu eban. Benetan gorrotagarri biurtu zan.

Austria'ko Braunau'n jaio zan 1889'ko aprillaren 20n. egunean.

Ikasle txarra izan zan beti eta bere amak mizkeriz azi eban.

Gudaldietan burdiñezko kurutzea lortu eban, baiña kabo baiño goragoko maillarik ez eban lortu.

Laster erabagi eban judatarrek zirala errudun Alemania'n jazoten ziran zoritxar guztia izateko.

Langillen alderdi txiki batera sartu zan eta bere arerioak judatarrek, demokrazia eta kapitalismoa ziran. Bera Laterriko Sozialismoaren (nacional socialismo) aldekoa zan.

1923n. urtean parlamentuaren aurka jokatu ebalako bost urterako espetxeratu eben eta zortzi illebeta egin ebazan barruan. An idatzi eban "Mein Kampf" edo "neure burrukea" liburua.

Arioen endea ipiñi eban nagusi (euskaldunak be ondoan dirala) Rosenberg'eri jarraituz. Bera ez zan, arioen antzera, aundia ta ulegorria, txikia ta baltzerana baiño. Bardin izan jakon.

Alderdiaren bidez eta lege onez sartu zan erri-ardure-tara eta Kantziller izatera.

Laster sortu ebazan zigor-zelaiak eta alderdi ta sindikato guztiak kendu ebazan. Eta erriko jentea pozik eukan!

1935n. urtean asi zan Alemania armaz jazten eta 1938n. urtean Austria ta Txekoslovakia eskuratatu eban eta 1939n. urtean ituna egin eban Estalin'egaz sortaldeko Europa alkar-banatzeko. Urte orretan jarri jakozan aurka Bretaña Aundia ta Frantze. Eta Polonia'n asi eben gudea. Berak irabazi eban eta gero Dinamarka, Noruega, Belgika, Holanda ta Frantze eskuratu ebazan. 1941n. urtean urreratu zan Rusia eskuratzera eta urte beratan guda aldarrikatu eutson USA'ri.

1943n. urtera arte iñok ez eban uste, España'ko Franco'k be ez, Hitler'ek guda galduko ebanik.

Sei milloi judatar erail ebazan zigor-zelaietan.

Baiña azkena ikusi ebanean, ezkondu egin zan Eba Braun'egaz eta Berlin'eko bere gotor-lekuan berak erail eban bere burua 1945 urteko aprillaren 30n. egunean.

OLAZAR'tar Martin'ek

URRENGO BATZARRAK

Jorrailla (Aprilla)

10' ean, 5' etan, EUSKERAZALEAK,

Illerokoa

26' an: 11' tan, Euskerazaintza

Urterokoa:

10 1/2 1º deia

11' tan 2n. deia

Ekintzak: Martin Olazarr'ek

Kontuak: Egurrolak

Maiatza

8' an, 7' retan: Euskarazaleak

Illerokoa

7 1/2' etan bereizia, 1º deia

8' etan: bereizia, 2n. deia

Gai bakarra: Araudi barria

31' n: EUSKERAZAINTZA: bereizia

10 1/2' tan lenengo deia

11' tan bigarren deia

Gai bakarra: Araudia barriztatu

Bagilla

12' an, 5' etan, EUSKERAZALEAK

Illerokoa

28' an: 11' tan: Euskerazaintza

Illerokoa

El borrador de los Estatutos estará a disposición de los Sres. asociados a finales de Abril en las oficinas

LENIN

Marx'ek azia erein eban, baiña bere denporan Rusia'n baiño ez zan erne. Emen jabetasuna kendu eban, agintaritza lortu eta proletarioen diktadura ezarri eta laterri aundi bat eregi.

Baiña zelako erailketak eta kalteak orretarako! Gaur Berlin'go ormea kendu zan ezker, iñok ez dau sinisten komunismoa gizarterako bide egokia danik. Zelan edo alan jarraitzen dau Kuba'n eta Txina'n.

...

Lenin 1870n. urteko aprillaren 22n. agunean jaio zan.

Agintaritzara eltzeko Tzar'en sendia (Romanof) erail eban. Onak be Lenin'en anai bat il ei eban lenago terrorista zalako.

1891n. urtean amaitu ebazan zuzenbideko ikasketak eta lau urte geroago espetxeratu egin eban langilleen alde agertzen zalako. Siberia'ra eroan eban eta ondo bizi izan zan an bere emazteagaz: Irakurten, arraintzan...

1900n. urtean askatu eban eta Suiza'ra joan zan. 1903n. urteko bagillean sortu eban alderdia eta alderdi onetan bera zan boltxebike edo maioritarioen buru, besteak mentxebikeak edo minoritarioak ziran.

Munduko lenengo gudan berak guda ori Rusia-barruan izatea nai eban, erritarren arteko gudea, baiña ez eban lortu.

Lenin biozkatuta egoan, urtebiderik ikusten ez ebalako, baiña 1917n. urtean, esan dogun lez, kendu eban Tzar agintaria eta Proletarioen diktadura ezarri eban. Gudaren bidez lortu eban agintaritza ori.

Izukeria agertzeko bide lez, "txeka" sortu eban eta Gulag deritxen zigor-zelaiak be bai.

Urrengo urteak izan ziran gogorrenak: Erailketak ugari, giza-taldeak itota, erritarrak gasagaz

erailda, baserritarrai lurak kendu eta oneik erail edo Siberia'ra bialdu eta euren lurak laterritratu. 15 milloi baserritar desagertu ziran.

Baiña iñondik ez zan agiri esandako askatasuna eta jatekoa urri egoan, ogia bera be bai.

1922-24 urteetan gaisorik egoan Lenin, berbea be galdu eban eta Stalin jarri zan agintari. 1924n. urtean il zan Lenin eta Plaza gorrian illobiratu eban. 1991n. urtean amaitu zan artean emoten jakon kultoa.

Gudaritzan 701.847 il ziran , gaiñera millak eta millak fusilatu ebezan. Gosea, otza eta gaisoak ziran nagusi eta askok erail ebezan euren buruak.

Gutziz eraildakoak milloi bi izan ziran eta milloi bi erbesteratuak. Urrengo urteetan Lenin'ek eta bere lagunak eun milloi baiño geiago erail ebezan.

Eta dana zertarako? Erria gosez isteko? Ormea egiñaz galazo eutsen erritarrari sortaldera joatea.

Baiña, azkenean kendu zan Berlin'go orma ori. II Juan Paulo Aita Santuak kentze orretan zer-ikusia izan ei eban.

OLAZAR'tar Martin'ek



MIGEL SERBET

Inkiziziñoak, Eleizearen aginduz, asko erail ei eban, naiz sogiñak izan naiz fede-ukatzailleak edo fede okerrekoak izan.

Baiña beste erakunde batzutan be izan dira olako jokabideak. Aldi aretako gaisoa zan antza.

Migel Serbet jakituna zan eta berak aurkitu eban gure gorputzean dan odol-bide laburra (birietatik biotzera), baiña ospetsuagoa zan beste arlo batzutan, izar-iztian edo astrolojian, esaterako.

Egia esan bere idazkietan fanatismoa agiri da, burubide itsukoa zala ikusten da.

Lenengo katolikuen inkiziziñoan epaitu eban errea izatera, baiña Kalbino izan zan Ginebra'n ori egin ebana.

•••

Gizaldietan eztabaidatu da Migel Serbet non jaioa zan, gaur ondo dakigu ez zala Muskaria edo Tude-la'koa. Aragoi'ko Villanueva de Sijena'n jaioa zan, 1511n. urtean. Orregaitik esaten eban berak arro-arro "España'ko Aragoi'tarra" zala.

Sendiz entzutetsua zan. Bere aitak eskribau edo notario-lana egiten eban.

Absburgo'n egon zala eta an ezagutu ebazala protestateak diño, baiña gauza ziurragoa da Basilea'n egon zala, Erasmo ezagutzeko gurariak eroanda, baiña Erasmo bera ez eban aurkitu. Bere jarraitzailleak baiño ez ebazan ikusi.

Liburu bat argitaratu eban "Irutasunari buruz oker-eritxiak" idazpuru dauala eta or diñoana ezarri nai eban Basilea'ko erasmotarren artean, baiña alpe-rrik, protestateak Irutasuna sinistu nai ez ebelako.

Protestanteak ez eben ezer egin bere aurka eta katolikuak bereala baitu eben eta surtarako epaitu.

Andik Lion'era joan zan eta uri onetan bizi izan zan Migel de Villanueva izenagaz. Inkiziziñoa bere ostean ebillalako aldatu eban izena.

Aurkitu ezin eta, inkiziziñoa klerigoa zan bere anai-agana urreratu zan laguntza eskatzera baiña ez eben ezer lortu. Anai klerigoa sekularizatu bai egin zan.

Sinforiano Chanpanier osagillea ezagutu eban eta onek bideratu eban osagilletza ikastera eta arrezkero bere ikasbideak osagilletza ta izar-iztia (astrolojia) izan ziran. Orretan ebillela aurkitu eban odol-bide txikia gizakien gorputzean. Aurkitze aundia zan egin ebana, baiña berak ez eutson garrantzirik emon.

Vienne'ko gotzaiñak entzun eban astrolojian jakitun zala eta bere itzaldi batzuk be entzun ebazan gai orreri buruz Paris'en eta bere osagille lez artu eban.

Inkisdoreak bere billa ebilkiozan eta Vienne'n baitu eben. Berak lortu eban iges egitea baiña barrero arrapau-ondoren, su astitsuaz erreteko epaia emon eutsoen, besterik ezean bere irudia.

Bera Italia'ra joan bearrean, bere lagunak an eukazan-eta, Ginebra'ra, Kalbino'gana urreratu zan. Uri aretan Kalbino'k aginpide osoa eukan.

Lendik be Serbet'ek bere eritxiak agertzeko, idazki bat egin eutson Kalbinori, baiña onek erantzunik ez eutson emon.

Agustuaren 13n. egunean sartu zan eleizara Kalbino itzaldia egiten egoala. Bereala baitu eban.

Ille bian iraun eban epaiketak eta Serbet'ek bere burubideak zabaltzen egin eban lan eta Kalbino siniste okerrekoa ta sorgiña zala be esan eban.

Kalbino alegindu zan Serbet'en zigorra biguntzeko, baiña 1553n. urtean, urrillaren 27n. egunean erre eben eta erre eben toki orretan gaur bere oroitarria ta irudia dagoz.

OLAZAR'tar Martin'ek



IZAR-MOLTZOAK IKUSTEN

Gau baten guk ikusten doguzan izarrak obo-erdian 30.000 izar dira eta beste ainbeste dagoz egoaldeko oboerdian, guztiz 60.000 dira geure begi utsakaz ikusi geinkezan izarrak.

Izarrik argitsuena bakoitxak bere izena dauke: Sirius, Rigel, Bellatrix, Kastor, Antares, Betelgeuse, Regulo eta beste amarreko batzuk. Baiña beste era batera be izendatzen dira izarrak. Flamsteed'ek zenbakiakaz, Bayer'ek grezitarren alfabetoagaz. Alfabetoaren izkiak gitxiegi dira orretarako.

Ursa Nagusia da bidea asteko leku ona, beti ikusten dalako. Zazpi izar dira eta artzaren antza dauke, baiña geiago burdi batena, izen ori be emoten jako, Txina'n esaterako.

Onen besoan dago Alkaid izarra eta ondoan Mizar eta onen ondoan Alioth, Megrez... Mizar'en ondoan beste bat dago: Alkor. Au begi ona daukonak ikusi leike.

Goazen Ursa'ren atzetik gora artez eta Polo'ko izarra aurkituko dogu Ursa Txikian. Ez dago doi-doi poloan, baiña bai gradu bat baiño urrago.

Polo izarra Ursa Txikiaren ertzean dago eta inguruan Dragon izar-moltzoa: Zefeo. Eta sortalderago Kassiopeia eta sortalderago Andromeda izar-moltzoa, auxe da begi utsez oboaren iparraldean ikusten dan izar-moltzo bakarra. Andik laster Pegaso aundia dago.

Asi gaitazan barrero Ursa Nagusitik: Alkaid'etik aurrera, narraja-koloreko Arturo izarra dago (Idizain moltzokoa) Gorantza jarraitu ezkeru iru izar moltzo

daukaguz: Iparreko korona, Herkules eta Lyra. Onen barruan Vega izarra dogu nagusi eta geien argi egiten dauana oboaren ipar-aldean. Emendik 24 argi-urtera dago, Esne-Bidearen barruan, Apex puntuan: Orrantza joaten da eguzkia lurragaz eta beste planetakaz.

Esne-Bidearen barruan Sagitario izar-moltzoa daukagu eta inguruan eta izar-laiñoak. Gero Antares izarra gero Antares izarra eskorpion izar-moltzoaren barruan.

Ursa Aundia bagerik beste bide bat artzeko lekua Orion izarra dogu, baiña, au ez da ikusten udazko egunik luzeenetan, eguzkiak bere argiagaz estaltzen daualako. Ortik kanpora errez ikusten da eta izarrik ederrenetarikoa da.

Aurrera ta aurrera, or aurkituko doguz Betelgeuse, Rigel, Trapezi...

Arlo onetan beti dagoz izan barriak sortzen eta izar moltzoetatik urteten.

Or dagoz Iru Maria'k, Orion'en inguruan. Berago Txakur Aundia izar-moltzoa dago eta bertan Sirius argitsuena.

Sirius eta Iru Mariak lerro bategaz alkartzen ba'doguz, Taurus izar-moltzora goaz, Hiades'era. Emen daukagu ospetsua ta laranja-kolorekoa dan Aldebaran izarra. Aurrera jarraitu ezkeru Pleiadeak aurkituko doguz, oneik dira zeruko izar-moltzorik ederrena. Begiz ikusten dira euren artean 8 izar eta teleikuskiñagaz amarkadak.

Edertasunak poza emongo dausku ikus-gailluakaz edertasun asko billatzeko.

OLAZAR'tar Martin'ek

GORETZATU JAUNA

Goretzazu Jauna
goresgarria da –ta
zeru ta lurretan,
Bera da Jaun ta Jabe
biziaren Sortzaile
erreñu guztietan.

Zerua eta lurra
maitasunez sortuak
eder eder dira,
ez dago gauz bardiñik
ta guztien gidaria
Jaungoiko berbera.

Lurtar seme-alabak
goratu egizue
Jaungoiko Altsua.
maitasuna dario
egite guztietan
arduraz ondua.

JAUNAREN IZENA AUNDI

Jainkoren izena
egiz, agurgarria
izan zan lurrean,
Israeldarrak, gogoz,
goratu eben Jesus
gizadi-aurrian.

Jesus agurgarriak
gizadiaren alde
errukiz beterik,
mirariz josi eban
Israel lurraldea
lur dana ondurik.

Maitasuna erion
egite guztietan
lurraren aurrian,
maitez osotu eban
bizitz zoragarria
Kukutza gainian.

PAULIN

KARLOS MARX

Langintza edo industria aurreratu zanean, munduan iraulketa aundia agertu zan.

Lantegien jabe ziranak, lana indartzeko, dirua pillatu bear eben eta langileak euren irabaziak oso murriztuak ikusi ebezan, eta euren izerdia garratza eta irabazi gitxikoa zan.

Egoera larri onetan gizon buru-argi bat agertu zan. Karlos Marx. Onek zabaldu ebazan bideak arazoa konpontzeko, baiña ez beti bide egokiak.

Batzuk Marx'en bidea artu eta komunismoa sortu eben, dirutza beti laterriarena dala eta agintariak be "proletarioen diktadura" gogorra zirala.

Proletarioen diktadura eritxon bide orrek ondamedia ekarri eutsen erriari, esaterako Errusia'n: Baserritarrai lurak kendu eta oneitatik, 15 milloi erail ondoren, besteak Siberia'ra bialdu ebezan, egozan agintariak be erail ebezan, (Tzar'en etxeokak) eta irabazi guztiak laterriarentzat izatea agindu eben.

...

Bide onek ondamedira daroala ikusi da, batez be Berlin'go ormea kendu zanean eta gaur Kuba da bide ori jarraitzen dauan bakarra.

BEGIA

*Begia zoli dago
itxasora begira
mendi bizkarretik,
an, urrin urdiñean
arrain zuriak dabiltz
saltari uretik.*

*Goizeko ordubietan
arrantzaleak doaz
izontzi nausian,
abesti gozoenak
aidetuaz pozkiroz
uraren gaiñian.*

*Bakez dator eguna
argirik gozoena
gizonei emoten,
arrantzaliak doaz
arrain gozoen billa
zapiak zabaltzen.*

Paulin

Baiña beste bide bat be sortu zan Marx'en irakatsietatik, gaur sozialistak deritxenen bidea, eta onek ondoren obea lortu dau: Langilleen baldintzak obetu dira eta lantegiak ondo jarraitzen dabe.

...

Baiña goazen Karlos Marx bera ezagutzera.

Karlos Marx Treberis'en jaio zan 1818n. urtean, orrillaren 5n. egunean. Sendia judatarra zan baiña bera protestante biurtu zan eta judatarren aurka gogor idatzi eban.

Ikasketak Berlin'en eta Bonn'en egin ebazan eta Hegel'en filosofia izan jakon atsegin, naizta idealismo kendu eta materialismoaren barruan sartu. Gizartea aztertzeke tesis-antitesis eta sintesis bidea onartu eban.

1844n. urtea Paris'en Engels ezagutu eban. Au aberratsa zan eta asko lagundu eutson Marx'eri sozialisten bidean. Marx'ek izan eban legez kanpoko seme bat be eta Engels'ek berea lez artu eban.

1.845n. urtean Bruselas'era joan zan eta komunismo-taldeak sortu ebazan. Oneik bide gogorrek artu ebezan, esaterako ateismoa, iraulketa, gogorkeria eta erailketa asko egiteko bideetatik sartu ziran, proletarioen dikadura be onartzen ebela.

Burubide oneikaz sortu ziran Errusia'ko boltxebikeen bidea eta Txina'ko maoismoa...

Marx'ek 1.848n. urterako iragarri eban sozialisten iraulketa osoa baiña ez zan bete asmo ori eta Belgika'tik erbesteratu egin eben Marx. Gero Alemania'ra, Frantze'ra eta Bretaina'ra joan zan.

Engels'en diru-laguntzagaz "Kapital" deritxon liburua argitaratu eban, ia dana, baiña argitaratu bagerik geratu jakozan atal batzuk ukatu egin ebazan. Liburu onen zati batzuk ez dira bereak, plajioak dira.

Azkenengo urteetan goibel agertzen zan Marx, bere burubideak aurrera egiten ez ebelako eta bere lagun batzuk beragandik urrindu ziralako eta bere itxaropena ziran Alemania'k eta Bretaina'k beste bide batzuk artu ebezalako.

1.883n. urteko epaillaren 14n. egunean il zan Marx, bere burubideak Errusia'n sartu zirala jakin bagerik.

Amaitzeko, onura asko ekarri dauz Marx'ek gizartera eta langilleen egoerea obetzeko, baiña bere jokabide okerrak kalte aundia egin dabe, esaterako Errusia'n txirotasuna sortu dabelako. Txina'n zurrago jokatu dabe eta gaur "azokearen ekonomi"ra sartzen diardue.

OLAZAR'tar Martin'ek

DOLMENAK

Leizetatik urten-barriak ziran gizaki euskaldun areik, laster asi ziran euren bizi-modua eratzen.

Itaun bi egin ebezan asieran: 1) Zergaitik ez, beti eizan ibilli bagerik, pizti orreik geure etxean edo lurretan geure esku euki eta ugaritu? Orra or asmatuta artzaintza edo lenengo iraulketea nagusia gure edestian. 2) Zergaitik ez, janariak batzen basorik baso ibilli bagerik, etxe-inguruan janari orreik emoten dabezan landarak erein edo sartu? Asmauta dago neka-zaritzza, gizakien edestian izan zan bigarren iraulketea.

Artzaiñen aldia izan zan ba, urrengoa, K.a. 'ko 3 000 eta 2 000 urteen bitartean. Abraham'en eta Jakob'en aldia izango zan Biblian.

Artzain oneik, gaiñera, gaur be ikusi daikeguzan gomutakiak itzi euskuezan. Ikusi dagigun zeintzuk.



Dolmenak dira lenengoak: Iru arri aundi alboetan eta atzean eta beste arri aundi bat gaiñean. Zertarako? Dirudiane, euren illak obiratzeko. Ori izango zan Abraham'ek Magpela'n kanaandarra lurra erosita egin eban ollobia.

Menhir'ak: Lurrean sartuta gaiñerantza zorrotzak diran arri aundiak.

Jabetasuna agertzeko ete ziran?

Eta kromletx'ak, olako arriak urreratu eta obo bat sortzen dabela batzen diranean.

Au neolitiko edo arri-barri aroa da.

Giro orretan jarraitu eben metalen sasoiara arte edo Biblian Salomon'en aldira arte.

OLAZAR'tar Martin'ek

AMPURIAS

Inguruetan izan ziran erriakaz artu-emonak izan genduzan euskaldunok, baiña sarritan ez da izaten gauza erreza artu-emon orrekin albisteak batzea. An, or, emen billatu bear izaten da.

Kartagotarrakaz izan genduzan joan-etorri batzuk eta ez dira aitzu-bearrekoak.

Anibal'ek erromatarren aurka guda egiteko Auñamendi-gaiñetik bere elefanteakaz joan-bearra izan ebanean,



Anibal Auñamendi-gaiñek erromara, 40 elefantegaz.

Italia'tik Asdrubal bere anaiari laguntza eskatu eutson eta onek gudariak batu bear izan ebazan. Euren artean euskaldunak be izan ei ziran.

Ba-bakigu Kartago'tarrak indartsu egozana Erdi-Ugarte, ari eta Eszipion gudalburu erromatarrek azpiratuak izan arte, arik eta "delenda est Cartago" esaldia betetu zan arte.

Erdi-Ugarte onen barruan ori ospetsu bat egoan, antxiñakoa eta entzute aundikoa, gaurko Bartzelona'tik urrean eta Anpurias zan uri onen izena. Orduan toki aretan euskera egiten zan berba eta Anpurias izenak be ba-dauka euskal usaiña.

Estrabon eta Tito Libio edestilariak be aitutzen dabe uri au eta K.a.'ko 600n. urtean sortua dala diño. Marseille baiño gerotxuago. Bearrezkoa zan uri ori iparrerantz gaurko Galia'gaz eta egoalderantz gaurko Sirakusa'gaz salerosketa zeregiñak beteteko.

Anpurias bertan bizi ziran erritarren gaiñean eregia dala diño eta orreik bai, ziur, euskaldunak ziran. Bizkai'ko Itxasotik Lurrarte itxasora bitartean, Auñamendi-inguruan, guztiak ziran lez.

Anpurias uri au uri dirutsua, itxas-lanetan trebea eta oso arroa zala diño edestizaleak.



Anpurias'eko kore K.aiko VI gizaldikoa.

OLAZAR'tar Martin'ek

BELEROPONTE TA EGODUN ZALDIA (ERROMA)

Pegaso esaten jakon zaldi bereizi bateri: Zaldi egoduna zan.

Pegaso jaio zanean, lurra jo eban bere anka bategaz eta ostikoa jo eban lekuan iturria sortu zan. Apolo ta Musa olerkariari eskiñia zan iturria.

Zaldi bizia ta oso basatia zan Pegaso, baiña lenago Minerba jainkoseak ezi eban eta gero Musa olerkariari eskiñi.

Lizia 'ko lurraldeko bizilagunak estu bizi ziran, mamutzar batek gorriak ikusi eragiten eutsezalako. Erdi leoi erdi auntz zan mamua eta atzeko anak erensugearenen antzekoak eukazan. Mamuaren arnasea su biurtzen zan agotik urteten ebanean. Jakin ebazan Beleroponte 'k su-mamu orrek egiten ebazan okerrak eta bereala esan eutson erregeari berak ilgo ebala mamu ori. Pozik entzun eban erregeak berba ori.

Su-mamu ori ilteko ustean egoala, Beleropeonte Apolo 'ren eleizako sibila andereiñoagana joan zan, asmoa zelán betetu itauntzeko. Bear-bearrekoa ebala Pegaso egodun zaldia esan eutson onek.

Orduan Minerba 'gana joan zan Epiro 'ko erregearen semea zan Beleropente zaldi ori eskatzeko.

Minerba prest egoan laguntzeko eta agoko burdiñak

eta ugalak emon eutsozan eta Pegaso joaten zan ur-askara eroan eban Beleroponte. Au askearen atzean gorde zan. Pegaso askara urreratu eta edaten asi zanean agoko burdiñea jarri eutson eta menperatu jakon zaldia.

Aste batzuk geroago, ikusi eban baso batetik urteten su-mamua.. Beleroponte 'k jatsi-eragin eutson Pegaso 'ri geziaz errez zauritzeko eta zaldi gaiñean ondo tinkatuta bota eutson gezi zorrotzak il eban su-mamua.

Beleroponte 'k esker onak eta txaloak jaso ebazan bai erregearen aldetik eta bai erriaren izenean. Ainbat kalte egiten eutsen piztizarra garbitu ebalako. Eta arrotu egin zan Beleroponte eta egun baten bere almena jenteari erakusteko pegaso-gaiñean zeru-goienera igotea erabagi eban.

Zeru goienera eltzeko igon eta igon joiala, Jupiter 'ek ikusi eban eta ausardi ori geiagia zala uste izanik zigortzeko erabagia artu eban.

Mando-euli bat bialdu eban eta euliak pegaso ziztatu eban. Asi zan zaldia saltoka eta bota eban gaiñean joiana. Or amildu zan goitik beera Beleroponte eta lurra jota lertu egin zan. Baiña Pegaso 'k aurrera jarraitu eban eta Olinpo 'ra eldu zanean, barriro Musa olerkariaren jolasgarri jarri eben.



MARIA TUDOR ERREGIÑEA

Martin Lutero'k bere tesiak agertu eta Aita Santuak kondenatu ebanean, laster asi ziran bere aurka katolikuen ekintzak, lenengo izkilludunenak eta gero berbazkoak.

Izkilludunen artean lenengo asi zana V Karlos enperadorea izan zan, baiña ezin izan eban ezer lortu, Saxoniako Duke aukeratzailleak Lutero'ri eta onen jokabideari babesa emon eutsolako. II Felipe bere semeak jarraitu eban ekintza ori.

Englandia'n VIII Enrike erregeak sortu eban lenengo Erroma'tik banaketea eta gero protestanteen bidea.

II Felipe'gaz batera Englandia'n Maria Tudor agertu zan, Erroma'ko eleizearen alde. Au da gaurko gure onurakorra.

...

London'en jaiotako 1516n. urteko zezteillaren 18n. egunean. Eta VIII Enrike'ren et Aragoi'ko Katalina'ren alabea zan. Aitak semea nai eban, ez alabea, eta aitaren ametsak zapuztu ebazan bere jaiotzak.

Enrike'k berak ez eban nai erlejiño aldaketarik, Erromatik banatzea eban naikoa baiña 1552n. urtean, bera il eta ogebost urte geroago, artu eban Englandiak ostelari-tza edo protestanteen erlejiñoa eta VI Eduardo il zanean, onen arrebea eta VIII Enrike'ren alabea zan Maria Tudor gertatu zan erregiña.

Pozik entzun eban ori V Karlos enperadoreak, Englandia Erroma'ra biurtzeko bidea izan zeitekelako. Orretarako Maria onen eskua eskatu eban bere seme Felipe'rentzat. Au alargun egoan bederatzirtean eta Maria erregiña amabi urte zarragoa zan eta ez ain ederra be. Ba eukazan beste aukera oba batzuk be. Baiña II Felipe'k esan eban: "Ni seme esanekoa naz eta ez daukat beste guraririk neure aitarena baiño". Felipe ez egoan Maria'gaz maiteminduta baiña Maria'k pozik ikusten eban ezkontza ori: Ortik sortuko zan semeak alkartuko eban betiko Englandia Erroma'ko Aita Santuagaz.

Ezkontza-ituna izenpetu zan London'en eta ezkontzea 1554n. urteko urterillaren 5n. egunean ospatu zan.

Guztien guraria zan Maria'k seme bat izatea eta ainbat lasterren. Orrelan Felipe biurtu zeitekean etorri zan bidetik España'ra.

1554n. urtean zabaldu zan erregiña aurdun egoala eta Parlamentuari be esan jakon ori. Eskerrak emoteko mezak be esan ziran. Parleментuak autarkiz aukeratu

eban Erroma'gaz erlejiño bat egitea eta zismaren azkena. Barrero Englandia Katolikua zan.

Maria anker, krudel, biurtu zan eta 273 protestante ilteko be agindu eban. Baiña eguna eldu zan eta umea ez zan jaiotako, Maria ez egoan aurdun. Albiste orrek amaika amets zapuztu ebazan.

Bonner London'eko gotzaiñak esan eutsen Maria Tudor erregiñeari, dana izan dala Jainkoaren zigorra, erregiñeak gitxiegi zigortu ebazalako protestanteak. Arrezkero Maria Tudor erregiñeak iru illebetean 50 protestante erre ebazan. Baiña umea izatearen itxaropena galduta egoan.

Umerik ez zala sortzen ikusita, II Felipe'k itzi eban Englandia eta Flandes'era joan zan. Sarritan ikeertzen eban Maria Tudor. Erregiña semea sortzeko pozez beterik egoan beti, baiña ez zan sortu Felipe beragaz bost illebetean egon arren. Felipe'k iges egin eban.

Maria'k barrero esan eban aurdun egoala, baiña ez eutsoen sinistu. Berak oraindiño itxaropena eukan jainkoaren laguntzaz aurdun geratzeko, ori Eleizearen onerako izango zalako. Bere testamentuan aurdun egoala esan eban, baiña laster il zan eta aurrik ez zan agertu. Englandia barrero zisma'ra ta protestanteen federa bi urtuko zan, erregiña aurdun geratzea eziña izan zalako.

OLAZAR'tar Martin'ek



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

BIZKAITARREI BIZKAIERAZ

HERNAN CORTES

España'tik Ameriketara joan ziran urre-zaleen artean daukagu Hernan Cortes ospetsua.

Badajoz'eko Medellin errian jaio zan 1485n. urtean. Buru argikoa, jakituna ta zurra zan.

Salamanka'n egin ebazan ikasketak baiña Ameriketatik etozan urre-zaratak lilluratu eben eta ara joan zan.

1511n. urtean Kuba'n daukagu eta an egoan Diego Velazquez'ek beragandu eban zurra zalako. Onek bere senitartetik emon eutson emaztegaia be, eta Yukatan'era bialdu eban billaketak jarraitzeko.

600 gizon eroiazan beragaz. Jainkoari eskintzeko gizakiak erailtea debekatu eban eta antxe artu eban Mexiko'ren entzutea. Orrek aiztu eragin eutson Velazquez laguna.

Moktezuma aurkitu eban an, azteka'en agintari baiña onek ez eutson laga beragana urreratzen, Cortes'ek sarritan eskatu arren.

Azteka'tarren arrerioak ziran zempoala'tarrakaz egin zan lagun eta oneikaz bat eginda, azteka'tarren inperioa eskuratzea erabagi eban, euren artean banatuta eta alkarragaz burrukan ebiltzala ikusi ebalako.

Moktezuma'ren inperioa, Inka'tarrenaren antzekoa zan, aginte gogorrekoa, odol-zalea, eta eurentzat espāñatarrak etortea salbamena zala uste eben. Oneik izango ziran euren askatzaillak.

Hernan Cortes'ek bere burua gobernatzaillak izendatu eban eta Mexiko-barrurra sartu be bai, baiña lenago bere itsas-ontzi guz-ak apurtu ebazan iñok iges egin ez egian.

1519n. urtean azpiratu ebazan tlaxkatelkak eta bizirik urten ebenak laguntzaillak artu ebazan.

Cortes erail nai izan eben inditarrak baiña Malintxe emakumeak salatu ebazan. Cortes'ek artu-emon onak izan ebazan onegaz eta onen bidez eldu zan inditarrakaz 1519n. urtean Moktezuma'ren aurrera, Malintxe bera interprete zala.

Moktezuma'k ez eban nai gudarik, baiña espāñatarrak etorri jakozan Cortes'eri aurka eta laster azpiratu eta geratu ziranak gudari artu ebazan.

Moktezuma'ri eskatu eutson erria baretzeko eta au berba egiten egoala, azteka baten arrikada batek erail eban.

Txarto aurkitzen ziran Hernan Cortes eta lagunak: Inguaratuta, gosez, gitxituta... Zer egin? Atzeratu, erretiratu. 1520n. urtean izan eben "Noche triste" deritxona

Azkenean Otumba'ko gudaldia egin eben eta azteka'k betiko azpiratu ebazan. Or amaitu zan euren inperioa.

OLAZAR'tar Martin'ñ ek

LURRA

Euskaldun lur maitea, berezko zara eder seme alabentzat, zu ta zure umeak elkarren gutun gara euzko lurrarentzat

Mendi ta zelai ederrak daukazuz babesean biziaren pozez, lantegi ugariak agertzen dira nun-nai bizitza omenez.

Maitegarria zara euzko lur emoillea zure on-bidean, zuri begira dagoz euzkotar seme onak zuzentasunean.

ITZA

Itz ederrik nai ba da bizia poztuteko, zoaz Euskadira izkuntz jakintsua da euskaldun semeena itzetik itzera.

Jakituri ta biotz biok dabiltz batera miñak alkarturik, izkuntz berezia da euzkoak dakarrena alkartasunetik.

Usain gozozko lore bitxirik ederrena dabil gizonetan, euskera maitegarri sortu dau euskaldunak euzkotar itzean.

BIOTZA

Bizi ardatza zara urrezko bitxi ori gizonen barnean, zure menpe daukazuz azur, odol, aragi bizitz ederrean.

Urtien gora-beran giza seme guztiak zuri deiez dagoz, bizia maite nai dau gizzon zoragarriak zure amodioz.

Biotz maitegarria zabaldu gaixoari bizitza ateak, ta maitasun gozoaz eztitu goitik-bera samiñen nekeak.

PAULIN

LUTERO TA KALBINO

Erdi-Aroari iñoz esan jazo “Mille urteko illunaldia edo gaua”, baiña ez da ondo esana. Mille urte orreitan izarrak eta illargiak baiño argi aundiagoa egiten daben gizonak dagoz. Batzuk gogoratuko doguz: San Agustín, Karlomagno ta Alakuino, Akiño'ko Tomas, San Buenabentura...

Esaldi edo pentsaketa ori sortu ebenak ber-jaiotza'ko gizakiak izan ziran eta zati on baten egia diño: Erria ta Eleizea erdi-aroaren azkentan lo-zorroitik itxartu-eziñik ikusten doguz.

...

Giro orretan agertu jakuzan Lutero ta Kalbino. Oneik Eleizea aldatu nai izan eben, baiña okereko urrats asko emon ebezan.

Lutero da argien agetzen jakuna: Eleizea aldatzeko bideak artea ondo egin eban, baiña aldaketa ori barrutik egin bear zan, ez kanpotik, berak egin eban lez.

...

XV gizaldia artega ta urduri sartu jakun sartaldeko eleizara: Aita Santua negargarri (gogoratu Abiñon, iru edo lau Aita Santuask batera, Borjia...) eta eleiz-gizonak oso ezjakiñak eta ustelduak ziran...

Biurtzea ta aldatzea bear zala iñoen guztiak Eramos'k naiz Tomas Moro'k, Isabel katolikoak naiz Cisneros'ek...

Eta orretarako zer egin be guztien buruan egoan: Liburu Santuetara biurtu. Orretarako argitaratu eban Erasmo'k Biblia, orretarako Cisneros'ek Biblia Poliglota Konplutense...

Baiña erri-maillan aldaketa Lutero'k ekarri eban.

Lutero 1483-11-20'ean jaio zan Eislebe'en. Sendia baserritar dirudunak ziran.

Ekaitz aundi batek bildutu ebalako sartu zan Agustindar lekaideen artera 1505n. urtean, 1507n. urtean abade egin zan, 1512n. urtean teologian dotore eta Teologia ta Biblia'ren irakasle. Ortze sartu jakon barru-ba-

rrura San Paulo'k esana: “Zintzotu fedeak egiten dauala eta ez egite onak”. Ori teolojiaren barruan ondo egoala uste izan eban. Izan be, orduan argitu bageko arazoa zan.

1517n. urtean asi ziran Erroma'tik etorritako lekaide batzuk San Pedro eleizea ordaintzeko diru aterateko induljentiak, “saltzen” eta or egin eban oztopo Martin Lutero'k. Antza ori egiten ebenak bere ordenakoak bagerik, beste ordena bateko lekai-deak ziralako.

Orduan (1517-10-31) Lutero'k Witenberg'eko eleizan ipiñi ebazan idatzita 95 tesi ospetsuak, induljentiak buruz. Bere asmoa gai au aztertzen zan, baiña danbadeak beste leku batetik urten eban zarala ikaragarriagaz.

1521-01-01 egunean X Leon Aita Santuak atzera egiteko eskatu eutson eta Lutero'k bide ori artu nai ez ebalako, eizaketa zaratatsuan gotzaiñakaz eta leinargiakaz ebilleta izenpetu eban Lutero'ren eskomunikapena.

1521n. urte beratan Lutero Worms'era joan zan V Karlos enperadoreak deituta eta an be ez eban atzerantza egin nai izan. Ez eben sutan erre (Huss'en antzera) Sajonia'ko Dukeak bere gazteluan artu ebalako... Ortze itzuli eban Bibliaren Itun Barria alemanen izkuntzara. Geroago Biblia osoa. Lan ederra benetan!

Lutero'k olako lanetan jarraitu nai eban baiña bai zera! Ez eutsoen itzi. Sua biztu eban eta orain sutea aundia zan.

Eta asi zan Lutero okerkeriak egiten: baserritarrak matxino biurtu ebazan berak eta gero berak agindu eban guztiak ilteko, txakur amorratuak ba'lira lez.

1525n. urtean ezkondu egin zan Bora'tar Katalina'gaz.

1537n. urtean osasuna galtzen asi zan eta 1546n. urtean il zan, baketsu Eisleben bere errian.

...

Lutero'k bizitasuna sortu eban errian eta Biblia azaltzen lan aundia egin eban, baiña protestanteen teologia eratu ebana Kalbino izan zan.

Kalbino 1509n. urtean jaio zan eta amabi urtekoa zanean lenengo eleiz-arduren artu eban. Gerotxuago beste olako bat, eta orrelan dirua eukan bere lana egiteko.

1531n. urtean aita il jakon eta 1533n. urtean agertu zan lenengoz protestante, zalantza aundiak eta burruka-aldi luzek igaro-ondoren.

Frantze protestanten aurka egoan eta Kalbino'k iges egin eta eleiz-ardurak be itzi egin bear izan ebazan.

Basilea'ra joan zan isillean ikasten lan egiteko, baiña laster aurkitu eben. Liburu bat idatzi eban I Frantzisko Frantze'ko erregearentzat: “Kristiñ-au-Erlejiñoaren Erakundea”. Lau atal eukazan: Legeak, kredoa, Gure Aita, eta sakramentuak. Gero beste atal bi polemikoak eta apologetikoak, protesntanteen ikuspegitik. Liburuak ondoren ikaragarria izan eban eta gero aundiago eginda atera eban, 1560n. urtean lau tomo ziran.

Ginebra artu eban bere leku bereizi lez (1536) eta ondo artu eben, baiña gero erbestera egin eben agintari gogorra zalako. Estrasburgo'ra joan zan teologia irakasteko.

Baiña Ginebra'tik barriro deitu eutsoen eta diktadura gogorragoa ezarri (1541) eta 25 urtean irauan eban. Aldi orretan agindu zan Migel Serbet ospetsua erailteko, baiña, antza dagoanez, Kalbino'ren gogozkontra.

Bere etxe-bizitzan txiro bizi zan, baiña erriak aberatsak izan bear dabela aldarrikatu eban. Orrelan ulertu eutsen Laterri Batuetan.

...

Orra or mundua aldatu eben gizon arduratsu bi. Baiña tamalez aldaketa ori ez eben egin Eleizearen barruan!

OLAZAR'tar Martin'ek

THARSIS EDESTIA



Batez be fenizioak onak ziran metalak non dagozan usaiña artzen eta billatzen, naiz egolaldera gaurko Afrika´ren, naiz iparralderantz gaurko Bertaña´ra arte joaten ziran.

Iru gauza irakatsi ebezan orduko gizartean, itxas-ontziak egiten, idazten eta metalakaz dirua egiten. Ez gendun eurakaz artu-emon larregirik euki, guri ez euskuen irakatsi idazten eta ez diru egiten eta intxas-ontzigintzan onak gara baiña ez dakit arein irakatsia dan.

Orduko Tharsis ori (gaurko Rio Tinto) zabala zan eta gaur Huelba, Sevilla eta Cordoba diran lurralden zatiak artzen ebazan. Sierra Morena´tik be urrean eukezan meategiak.

Gaiñera, lurra landu nai ebenak arlo ederrak eta ugariak eukezan Guadiana-inguruan.

OLAZAR´tar Martin´ek

Tharsis edo Tartessos inguruak ospe aundia izan eban antxiñako denporetan eta entzute orren iturriak bertan egozan meategi aberatsak dira.

Salomon erregeak bere itxas-ontziak meatzen billa Tharsis´era bialtzen ebazan. Eta salmoetan de sarritan esaten da Tharsis´ko eta ugarteko erregeak Israel´goari esku-erakutsiak ekarriko eutsoezala.

Jonas igarleak, iges egiteko Jafa´n Tharsis´erako tiketa artu eban.

Ba-dakigu inguru orretan agintari ospetsua izan zan errege baten izena be: Argantonio. Izen au ba-leiteke mito utsa izatea.

Tharsis orretara urreratu ziran, inguruetan koloniak ezarrita, grekoak eta fenizioak.



SIMON BOLIBAR

Simon Bolibar ez da Euskalerrian jaioa, naiz ta jatorriz emendik joanak izan bere gurasoak.

Lan aundia egin eban Ego-Ameriketako erriai askatasuna eroaten. Izan be, an egozan euskaldunen jokabidea zan ori, baiña gitxi eldu dira Bolibar'en maillara.

Asi-aurretik ez aitzu ikutu aundia izan ebela ango laterrien askatasuna lortzeko masoiak. Onein jokabidea España'ren aurka joatekoa zan, eta Bolibar bera be masoia izan zan. Gero agintari izan zanean debekatu egin ebazan masoiak edo isilleko bazkunak.

Bolibar'en jokabidea gorrotagarria zan askorentzat, etoi lez artu izan zan, beste askorentzat, ostera, benetako askatzaillea zan.

Ikasketak egin-ondoren gudarostera sartu zan eta Madrid'era egin eban ostera bat osaba-izekoak ikertzeko. Ez zan luzaro egon Madrid'en.

Barriro joan zan Karakas'era eta beingoan emaztea il jakon. Sei illebeta baiño ez eben egin ezkondata.

España'ra etorri zan ostera be, eta gero Frantze'ra ta Italia'ra be bai askatasun-zaleakaz batzarrak egiteko. 1809n. urtean Frantze'k laguntza emon eutson San Martin'eri emoteko eta lan orretan ekiteko. Masoiak be lagun izan ebezan.

Sasoi aretan (1812) liburu bi idatzi ebazan "Kartajena'ko agerpena" eta "Granada Barri'ko erritarren gomutakia". Or agertzen dau zergaitik ezin dan lortu errien askatasuna.

Urrengo urteetan militar lez eskasa agertu zan Bolibar eta 1814n. urtean askatzailleak azpiratuak izan ziran eta Bolibar'ek iges egin bear izan eban, Jamaika'ra (1815).

1817n. urtean aletin barriak egin ebazan, baiña alperrik.

1819n. urtean Benezuela'ko Lendakari egin eben eta agintaritza gogorraren alde agertu zan eta bere politikea ardtz-zalea zan, itxuraz demokrazia izan arren. Urte beratan Kolonia sortu eban. Aurrera joian baiña astiro!

España'n Riego (masoia) agintari jarri zanean, 1821n. urtean menperatu eban españatarren gudarostea eta Benezuela aske geratu zan.

Azkenengo urteetan masoiak izan ziran nagusi España'n eta Ameriketean.

Bolibar'ek San Martin'egaz bat egin eban eta askatasuna egoalderantza zabaltzen asi zan. 1824n. urtean Ayakutxo'ko gudaldiagaz nagusi geratu ziran askatasun-zaleak, baiña lurraldeak askatzea baiño gaitxagoa zan eurak eratzea eta lurraldeak lar zatituta geratu ziran Ego-Amerika osoan eta sortzen ziran agintarizat ez ziran beti demokrazi-zaleak.

Bolibar Kolonia'n finkatu zan eta an be diktadura sortu eban (1828). Urte beratan debekatu ebazan isilleko bazkunak. Ori masoien aurka joian. Ori dala-ta, aste bi geroago erail nai izan eben, Bolibar baiña bizirik urten eban bere maitale zan Manuela Saenz'eri eskerak.

1830n. urtean itzi eban agintaritza kongresoaren aurrean, eta abenduaren 17n. egunean il zan eta amabi urte geroago bere gorpua Karakas'era eroan eben.

Askatasuna/independentzia lortu zan baiña beste amets ederrak ez. Ego-Ameriketean ez da lortu Ipar-Ameriketako aurrerapenik.

OLAZAR'tar Martin'ek

BIZIA

Besutz aundiena da gizonaren bizia lurraren gaiñean, berez maitegarri da osasunez batera giza biotzean.

Egiteko aundiak sortzen ditu gizonak bizitzara adi, alkargoa eder da gogo onez lagunduta gizonen lanari.

Guztien laguntzagaz edertzen da bizia maitasun bidean, adiskide jatorrak zoriona daomtze gizonei lurrean.

OLERKIA

Edertasuna dakar itz zoragarri onek beren egoetan, notiñen adimetak ederrez apainduta euren jardunetan.

Buru ta biotza biak alkartzen dira eder gaia apaintzen, eta ondoren datoz lorez apaindutako itz bera goratzen.

Euskera ta euzko anai kutunak dira biak alkaturik, izkuntza jakintsua olerki loratsuak ondo, bat eginik.

PAULIN

BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²